



DANI BLANCO

Oier Araolaza

DANTZARIA ♦

## Barazki purea

PORRUAK, LEKAK, KUIATXOA ETA TIPULAK erabili ditugu purea egiteko. Barazki batzuk ortuan jaso berriak dira, baina haiekin batera jarri ditugu iaztik izozkailuan genituenak, eta gainera dendan erositako pure pote bat gehitu diogu. Turmixak egin du sinkretismoa.

Lagun batek gure festetako eta errituetako ezaugarri kristauak, paganoak eta osagai kultural ateoak bereizteko eskatu dit. Ez du erritu kristaurik ospatu nahi; festetan zer ospatu eta zer baztertu jakin nahi du.

San Joan aipatze hutsak urtikaria eragiten du; orain modakoa udako solstizioa ospatzea da. Eguberrietan Olentzero onartzen da: “Jentila zen, aizu!”. Inauteriak superbibentzia paganoak omen dira, beraz fenomeno; inauteri biharamuneko hausterre asteazkena eta garizumak zer diren ez dakigu eta ez dugu jakin nahi. Ez dugu onartu nahi gure festak eta errituak sinkretikoak direla, alegia barazki pureak.

Hezur-mamiraino sartuta dugun pentsamendua da ospatzen ditugun hainbat erritu superbibentzia paganoak –zernahi delarik horrek esan nahi duena– direla, baztertzeko saiakeran huts egin ondoren kristautasunak bere gerizpean onartu behar izan zituenak. Hipotesi hori XIX. mendean sortu zen eta XX. mendean galzterdia bailitzan buelta eman zaion arren, zuzenketak ez

du zuzenduaren oihartzunik eskuratu, eta topiko faltsua, aurkikuntza berria bailitzan belaunaldi erosten dugu.

Gaurko antropologo eta erlijioaren historialari azkarreratuko batzuek diotenez, erritu paganotzat ditugunak orain 150 urte asmatu ziren. Kristautasunaren aurreko kultu eta erlijio ohiturak nolakoak izan zitezkeen irudikatu nahian, XIX. mendeko Europako herritar kristauen erritualak izan zituzten inspirazio iturri. Garaikide zituzten herritar xeheen kultu eta festa kristauak aztertu zituzten, eta horietan oinarrituta irudikatu zituzten bi mila urte lehenagokoak.

Behin erlijio paganoen kultu ohiturak berrasmatuta eta ezagutzera emanda, superbibentziak eta erritu arkaikoen aztarnak zeremonia kristautetan identifikatzea bakarrik etorri zen. Nola ez zuten ba antzekotasunik aurkituko, haietan oinarrituta asmatu baitzituzten ustezko iturriak?

Purea mahaira atera eta hasi dira komeriak. Batek dio porruen hariak ezin dituela irentsi. Beste batek kongelatatutako jakirik ez duela jan nahi; hirugarrenak dio... Purea mahaira atera eta hasi dira komeriak. Batek dio porruen hariak ezin dituela irentsi. Beste batek kongelatatutako jakirik ez duela jan nahi; hirugarrenak dio genetikoki eraldatu gabeko fruitu basatiak bakarrik jango dituela... Ez dakit zer egin, purea zakarrontzira bota ala barazki kremaren dekonstruzioaz nazioarteko sinposiuma antolatu Donostian 2016an. ■

*Purea mahaira atera eta hasi dira komeriak. Batek dio porruen hariak ezin dituela irentsi. Beste batek kongelatatutako jakirik ez duela jan nahi; hirugarrenak dio...*



XDZ

Joanes Etxebarria



KAZETARIA

## Tralala lalalala lala

LAGUN BATEK ERRANA: “Dena den pastoralak beti izanen dütük ez beita eüskara jakin behar egiteko”.

Polemikatxoak egin du bere bidetxo eta joan zen uda, orain negua heldu da. Afera ez da auzitegitik pasako eta ez zaio heldu den urteko pastoral Jean-Louis Davanti eginaraziko kalte-ordain gisara. Pastoral frantsesez idatzi zen eta berdin txalotu zen.

Normala, herri oso baten izerdia taularitzen delarik, txistuka aritzea itsusia litzatekeelako. Aitzineko urteetako pasto-

raletan, belarrira ezagun zen arizale (aktore) anitz ez zirela euskaldunak. Ez zen, orduan ere, txisturik entzuten. Txistuak tauladako alde gorritik ateratzen diren gaiztoentzat izaten dira, irriak ere usu.

Isil-isila itzaltzen da polemika, piztu den bezala. Hiruzpalau mila ikusle herri-ekartzeko ilusioa bizi-bizia da oraino, eta kalkuluak fite eginak dira; euskaldun bat aski da herri batek pastoral egin dezan, eta ez bada idazlea itzultzailea izan dadila. ■